BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5513

EBAZPENA, 2013ko azaroaren 5ekoa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, Lezama eta Larrabetzuko udal-barrutietan Lezamako TEAren eta Neitor industrialdearen arteko 30 kV-ko zirkuitu bikoitzeko lurpeko linea elektrikoa instalatzea baimentzeko, hura egiteko proiektua onartzeko eta haren onura publikoa aitortzeko dena.

Erreferentzia: L-7761 ASS/TLE.

Espedientea: AT-H-2012-16.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– 2013ko otsailaren 1ean, Iberdrola Distribución Electrica, S.A.U. enpresak (egoitza Bilbon du, San Adrian etorbideko 48an) linea bat exekutatzeko proiekturako administrazio-baimena, onura publikoko deklarazioa eta onarpena eskatu zituen. Linea hori, hain zuzen ere, Lezama eta Larrabetzuko udal-barrutietan Lezamako TEAren eta Neitor industrialdearen arteko 30 kV-ko zirkuitu bikoitzeko lurpeko linea elektrikoa izango da. Horretarako, eskabidea eta proiektu teknikoa aurkeztu zituen, proiektua José Manuel Gorbea Salazar industria-ingeniariak sinaturik zegoen, 2013ko urtarrilaren 28ko gaitasun-deklarazioaren arabera.

Bigarrena.– Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuko 10. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuko 144. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Iberdrola Distribución Eléctrica SAren aipatu eskabidea jendaurrean erakusteko iragarkia argitaratu zen, 2013-03-21ean BAOn, 2013-05-14an EHAAn eta 2013-04-05ean El Correo egunkarian.

Hirugarrena.– 2013ko martxoaren 11n, ofizio bana igorri zitzaien Lezama eta Larrabetzuko Udalei, aipaturiko iragarkia udaletxeetako iragarki-oholean jar zezan; eta, aldi berean, Bizkaiko Foru Aldundiari, Euskalteli eta Bizkaiko Uren Partzuergoari ere eskatu zitzaien bai instalazioaren onura publikoaren deklarazioa bidezkoa zen ala ez adierazteko txostena emateko, eta bai, hala bazegokion, egoki iritzitako baldintza teknikoak aurkez zitzala ere.

Laugarrena.– Arauzko izapideak betez, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.Uk onartu egin ditu beste erakundeen baldintzak, eta batez ere Lezamako Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraioetako Sailak aurkeztutakoari buruzko baldintza, proiektua apur bat aldatu duena, EC-01 eta EC-03 planoen arabera, eta espedienteari eransten zaio.

Bosgarrena.– Jendaurrean erakusteko aldian, José Ramón Cotano Urrutikoetxea jaunaren alegazioei sarrera eman zaie, eta alegazio horien bidez, proiektuari buruzko informazio pertsonala eta ingurumen-inpaktuaren azterlana eskatzen dira, eta beste trazatu batzuen analisia eskatzen da, 8 zenbakiko partzela Juan José González Gallo jaunaren landa-bide partikular bat dela adierazita. Gauza bera esaten da 8 zenbakiko partzelari buruz eta beste alternatiba batzuk hartu beharko liratekeela kontuan, eta ezin izan zaie zortasunik ezarri zenbait lursaili, azalera hektarea erditik beherakoa badute, eta bere analisia lurpeko lineek eragindako eremu elektromagnetikoetara hedatzen dute. Era berean, jendeaurrean erakusteko alditik at, Rosario Angulo Ribero eta Juan José González Gallo jaun-andreek alegazio bat aurkezten dute, eta alegazio horren arabera, proiektuak ez du betetzen Lezamako Udalaren Plangintza Orokorra.

Seigarrena.– Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.Uk ezesten ditu partikularren alegazioak, ingurumeneko legeriak ez baitu eskatzen inpaktu-azterlanik egiterik, eta beste trazatu batzuk aztertu direlako, proiekturako hautatutako trazaturako aurreikusitakoa baino % 10 gehiagoko kostua dakartenak. Gainera, gurutzabide gutxiago dituzte. Ezesten du, orobat, zortasuna 8 zenbakiko partzelari ezartzen zaiola, landa-bidea dena, alegatzaileek berek diotenez.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa.– Espedienteak betetzen ditu Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak, Energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 3an emandako 282/2002 Dekretuak eta bat datorren gainerako legediak agintzen dituen arauzko izapideak.

Bigarrena.– Trazadura aldatzeko eskatzeko egindako alegazioak aztertzerakoan kontuan hartu behar da onura publikokoa izatea interesdunen komenientziakoa izateari gailentzen zaiola, eta proiektuaren inbertsio ekonomikoei balio handia emanez ponderatu behar dira, gainerako soluzio-bideak hautatutakoa baino % 10 handiago direlako.

Partikularrek aurkeztutako gainerako alegazioei dagokienez, bide partikularraren gaineko zortasuna ez du arloko legeriak eragozten, eta lege-xedapenetan ere ez dago aurreikusita, kasu honetarako, ingurumen-inpaktuko azterlan beharrik. Proiektuko eroaleek eragindako eremu elektromagnetikoak legeriaren aurreikusitako mugen barruan daude. Proiektua Lezamako Udalaren irizpenean egon da, eta bertan jasota daude udal horrek bere plangintzak errespetatuak izateko aurkeztutako baldintzak.

Hirugarrena.– Sektore Elektrikoari buruzko 54/1997 Legearen 52. artikuluak herri-onurakotzat deklaratzen ditu argindarra banatzeko instalazioak, horiek instalatzeko beharrezko diren ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzea egiteko eta igarobide zorra ezarri eta erabiltzeko, eta, deklarazio horrek berez berarekin dakar ondasun eta eskubide horien hartu beharra eta presaz okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluaren ondorioetarako.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuak ematen dizkion eskumenak baliatuaz (2013-04-24ko EHAA), Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariak honako hau

EBAZTEN DU:

Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.Uri baimena ematea , eta proiektua onartzea. Proiektua, Lezamako TEAren eta Neitor industrialdearen arteko 30 kV-ko zirkuitu bikoitzeko lurpeko linea elektrikoa exekutatzeko da, eta ezaugarri nagusiak hauek ditu: lurpeko linea elektrikoa, zirkuitu bikoitza, 30 kV-koa, HEPRZ1 motako polo bakarreko konduktoreekin, 400 mm^2-ko sekziokoak, aluminiozkoa, Lezamako TBAren barnean dagoen airetiko euskarri batean du jatorria, eta, amaiera, NEINOR industrialdeko 5387 «Berresanago Industrial 3» TZn, 900 m-ko luzera izango du lineak.

Baimentzen den instalazioa onura publikokoa dela deklaratzea, eta deklarazioak, azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan xedatutakoaren indarrez, honako hauek dakartza berekin: ondasunak okupatu eta eraginpeko eskubideak hartu behar direla eta okupazioa, gainera, presaz egin behar dela. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen diren ondorioak dakartza, 53. artikuluan zehaztutako erregistro-ondorioekin.

Abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan eta abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriaz, eta ondoko baldintza orokorrekin ematen da ebazpen hau:

1.– Obrak 2013ko irailaren 13an aurkeztutako trazatuaren arabera egin beharko dira. Proiektua José Manuel Gorbea Salazar industria-ingeniariak sinatuta dago, 2013ko urtarrilaren 28ko deklarazioaren arabera.

2.– Martxan jartzeko epea ez da urtebetekoa baino luzeagoa izango, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

3.– Lanak amaitzean, instalazioen jabeak Bizkaiko Lurralde Bulegoari jakinarazi beharko dio lanen amaiera, behin betiko onarpena eman eta abiaraztearen agiria egite aldera.

4.– Baimen hau eman dugu udalek eta probintziek eman beharreko lizentzia eta baimenei eta obrak egiteko beharrezkoak diren gainerakoei ezer kendu gabe eta horietatik aparte, eta eskatzaileak beharrezkoak izango ditu horiek ere. Halaber, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe ematen da baimena, eta jabetza-eskubidea salbu utziz.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industria eta Energiako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, 4/1999 Legean ezarritakoa betez (lege horren bidez, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 5a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDÍA ZULOAGA.